

KALIGRAFIA ETA LETTERING TAILERRA, FAMILIAN

Lettering tailer berezi bat antolatu dugu datorren otsailaren 1erako, igandea, **8-12 urte bitarteko neska-mutilentzat eta eurekin datozen nagusiei zuzenduta**, azken hauek ere parte hartuz.

Parte hartzea irekita dago Laurokoak ez direnentzat ere, eta lagun, senide edo interesa duen edonork parte har dezake.

Lauro Fundazioak seme-alaba eta familien arteko **harremanak sendotu eta euskarazko aisialdi-esperientzia** aberasgarriak eskaintzea du xede. Ildo horretan, familian eta lagunartean egiteko Kaligrafia eta Lettering Tailerra antolatu dugu: sormena, hizkuntza eta elkarrekin ikastea uztartzen dituen jarduera, alegia.

Jarduera osoa euskaraz egingo da. Tailerraren helburua idazketa artistikoa modu ludikoan lantzea da, euskarazko giroan, ikasleek eta helduek elkarrekin sortu, ikasi eta gozatzeko aukera izan dezaten.

Zer egingo dugu tailerrean?

- *Lettering*-aren hastapenak
- *Script* kaligrafia landu, letra bakoitza pausoz pauso praktikatuz
- Errotulagailua kontrolatzen ikasi
- Azkenik, esaldi motibatzaile bat sortu eta apainduko dugu, etxera eramateko moduko paper bereziko lamina ilustratu batean

**Ez da aurretiko esperientziarik behar.*

Zer material erabiliko dugu?

Material guztia barne dago: letteringerako errotulagailu bereziak (Ecoline, Pentel, Karin, Gelly...), errotulagailu akrilikoak, akuarela metalizatuak eta sorpresa gehiago.

Ekintzaren informazioa:

Ikastaroa ematen duena: ["Margolari" arte-eskola](#). Bideoak [IKUSI](#).

Eguna: otsailak 1, igandea.

Ordutegia: 10:00 – 13:00.

Lekua: Lauro Ikastolako Lehen Hezkuntzako eraikina.

Norentzat: 8-12 urte bitarteko neska-mutilak, nagusi batek lagunduta (egoera ideala, ume bat+nagusi bat).

Prezioa: 32 € pertsonako.

Izena emateko epea: urtarrilak 29, osteguna.

Izen ematea: [IKUSI HEMEN](#)

Animatu parte hartzera!

Beñat Gonzalez

Lauro Fundazioko sail-arduraduna

gonzalezb@laurofundazioa.eus